

## IRAKASLEA: NEREA LOIOLA

Izenburua: UHARTE GALDUKO IPUINAK (Gazte(txo)entzako idazketa sortzailea)

Azalpen laburra: Kanpo-estimulu jariora tarte batez alboratu eta norberaren uharte galduaren bila arituko gara, sormenaren uhartea, irudimenarena, guztia posible den lurraldea. Bertatik abiatuta eta teknika desberdinak landuz, ipuin baten sorkuntza prozesua ezagutu eta gauzatzea da helburua.

Programa:

### 1. AURKEZPENA

- Elkar-ezagutza dinamikak.
- Proiektuaren aurkezpena.
- Kokapen jarduerak.

### 2. UHARTE GALDUAREN BILA

- Pertsonaiak
- Toki eta objektuak
- Ahotsa
- Egiturak
- Hizkuntza baliabideak
- Hasierak/Korapiloak/Amaierak
- Dialogoak
- Deskribapenak
- Egoera/Argumentu berriak sortzen.

### 3. IPUINA IDAZTEN

### 4. IDATZITAKOA AZTERTZEN ETA HOBETZEN

- Zuzenketak
- Koherentzia
- Gramatika eta ortografia

\*Programazio hau proposamen bat da, malgua, ikasleen ezaugarri eta lan erritmora egokituko dena.

Ikastaroaren iraupena: Bi orduko 10 saio = 20 ordu guztira.

Adina: 10-18 urte bitarteko gazte(txo)entzat.

Aurrez-aurreko modalitatea lehenetsiko da, baina 14 urtetik aurrerakoekin online egiteko aukera ere badago.